

10 ■ MCC, enplegu sortzailea

MCC taldeko enpresek Hego Euskal Herriko enpleguaren %3,26 sortu dute.

**20 ■ Musharrafen agurra**

Pakistango lehendakari Pervez Musharrafek tropak bisitatuko ditu, armada agurtzeko.



ten dira Nafarroako hiri hondakin gehienak, Iruñerriko Gongora zabortegira eta Lizarraldeko Carcarrekora eramatearekin batera. JACOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

duen erronka nagusia. Hondakindegia Senperen duen Bizi Garbia sindikatuaren salbuespenarekin (35.000 biztanle), Bil ta Garbik Ipar Euskal Herriko zaborrak eta Biar-noko hiru herritakoak kudeatzen ditu. Ez du hondakin bilketa egiteko eskumenik. Tratamendua da duen eskumen bakarra.

Ipar Euskal Herriko errauste planta bakarra Baionan zegoen, Bacheffores eremuan. Urte luzetan ingurumenaren aldeko taldeen kritika zorrotzak jaso ondoren, planta ixtea deliberatu zuen Bil ta Garbik 2005ean. Bost urtez 60.000 tona inguru igortzen ditu Bordelera tren- eta Girondan errausten dituzte. 25.000 tona Senpereko Zaluaga zentroan lurperatzen dituzte, Bil ta Garbik bere plana garatu bitarte.

Ipar Euskal Herria bi eremutan banatu du sindikatuak, mendebaldea eta ekialdea. Ereku bakoitzak zaborra bereizteko gunea, konposta ekoizteko eta azken hondakina lurperatzeko ukan beharko ditu. Ekialdeko eremuan, Bil ta Garbik Zuberoako Sarrikota Pea herria hautatu du hori egiteko. Protesta ugari egon ziren Sarrikota Pean. Txostena aitzinatu ahal izateko CLIS izeneko lautariko batzordea osatu dute, ingurumenaren aldeko taldeak bertan daudelarik. Usaian hondakindegia lanean delarik osatzen da batzordea, baina salbuespen gisa aitzinetik osatzea onartu du Paueko Prefetak. Elkarrekin adosturik bi ikerlan ezarri dituzte abian, emaitzak eratzeko aburuz.

Erronka handiena mendebaldeko eremuan du Bil ta Garbik, oraindik ez baitu atzeman azken hondakin lurperatzeko tokia. Urtea bukatu aitzin ikerketei ekin nahi zien baina Altain Iriart sindikatuko presidentek akordioa hobestea erabaki eta horrek atzerapena eragin du balorizazio sistema plantan ezartzeko tenorean. Anartean Bil ta Garbik behin-behineko egitura keta dauka, hondakindegia pribatu eta publikoak baliatuz, horien artean Hazparneko Hazketa zentroa.

ko Foru Aldundiaren asmoa da zabortegiak ixten joatea eta hondakin zati handi bat Zubietakogainetan egin nahi duten errauste plantara eramatea.

Ez da polemikarik gabeko azpiegitura, ordea. Hura kudeatzeko Gipuzkoako Hondakin Partzuergoa osatu zuten aurreko legealdian errauste plantaren aldeko indarrek. Alabaina, plantaren aurka dauden EAE-ANV eta EB-Berdeak nagusi dira Gipuzkoako mankomunitaterik handienean, San Markoskoan. Dena den, Partzuergoak, Aldundiak eta Donostiako Udalak Zubietako proiektuarekin aurrera jarraitzeko eta lanak 2009an hasteko asmoa agertu dute. Nolanahi ere, urrian ixtekoak ziren San Markosko zabortegia, baina, oraindik ez dute halakorik egin.

Konpostatzeko hiru instalazio egiteko asmoa ere badute agintariek, «gaikako bilketan urtean jasotzen diren 60.000 tonari erantzuteko». Horiek ez ezik, bestelako azpiegitura batzuk ere iragarri dituzte Gipuzkoako Hondakin Partzuergotik: hainbat transferentzia planta, garbiguneak eta hondakin geldoetarako planta bat.

Araba

Araba osoan 159.444 tona hiri hondakin sortu ziren orain bi urte; biztanleko 528.385 kilo. Bizkaia eta Gipuzkoaren atzetik, biztanleko hiri hondakin gehien sortzen duen herrialdea da.

Arabak dagoeneko badu zaborren tratamendu mekaniko-biologikorako instalazio bat, Gasteizen. Aurretiazko bereizketa meka-

nikoaz gain, digestio anaerobiorako eta digestio aerobiorako lineak ditu, eta baita gaika biltzen den materia organikoa konpostatzeko zati bat ere. Konpostatze linea horretan, urtean 18.000 tona inguru jasotzea aurreikusten dute agintariek.

Bizkairako eta Gipuzkoarako ez bezala, ez Eusko Jaurlaritzak eta ezta Arabako agintariek ere, ez dute aurreikusten lurraldean sortzen

diren hiri hondakinak erretzeko errauste plantarik eraikitzea.

Ipar Euskal Herria

Ipar Euskal Herrian sortzen da zabor kopuru txikiena Euskal Herri osoan: urtean 110.000 tona inguru; 404 kilo biztanleko.

2003an sortu zen Bil ta Garbi sindikatua; hondakin plana plantan ezartzea da 2008an ukanen

Aldundien planen arabera zabor kopuruak handitzen jarraituko du, baina joera eten nahi du Jaurlaritzak**I. PETXARROMAN**

Donostia

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek egindako hondakinak kudeatzeko plangintzen arabera, hondakin sorrera handiagoa

izaten jarraituko du hurrengo urteotan. Hala, Eusko Jaurlaritzak EAEn hiri hondakinak planifikatzeko eta kudeatzeko ildoak txostenean bildu duenez, 2016rako 1.422.000 tona hiri hondakin sortzea espero dute hiru herrialde horietan. Gaur egun, 1.165.799 tona sortzen dira. Hain zuzen ere 668 kilo zabor urtean sortuko du herri-tar bakoitzak 2016. urtean. 1995etik etengabe handitu da hiri hondakin sorrera Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan.

Hondakin %40 birziklatzea espero dute, hain zuzen ere, 570.000 tona; %8 konpostaren bidez berrerabiliko lirake (110.000 tona); %31 errauste planta ezberdinetara eramango dute (440.000 tona); eta %21 tratamendu mekaniko-biologikoz kudeatuko dute (300.000 tona). 2016an hondakindegietara tratatu gabe ez dela hiri-hondakin isuriko dio Eusko Jaurlaritzak txostenean.

Edonola, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak egindako Gara-

pen Iraunkorraren EAeko Ingurumen Estrategiaren helburua da 2012rako hondakin sorkuntza 2001. urtean zegoen kopurueta finkatzea.

Horretarako, honako erronka estrategikoak aipatzen ditu: prebentzioa sustatzea; gaikako bilketa eta birziklapen kopuruak handitzea, eta zabortegietara zuzenean eramaten den hondakin kopurua bestelako tratamendu batzuekin ordezkatzeko, besteak beste, erraustearekin.

Gero eta zabor gehiago sortzea aurreikusten dute